

En Lintzoain en la Casa Consistorial del Valle de Erro, siendo las 9,00 horas, del día 19 de agosto de 2021, se reunió el M. I. Ayuntamiento del Valle de Erro al objeto de celebrar sesión extraordinaria, en primera convocatoria, con la asistencia de los Sres./as Concejales/as, Don José María Eciolaza Ochoa, Don Juan Luis Fermin Gil García, Dña. Teresa Bidaurreta, Dña. Miren Nekane Nuño Iturri, Dña. Ainara Ekisoain y Dña. Leire Remiro Esnoz, bajo la presidencia del Sr. Alcalde D. Enrique Garrada Erro, asistiendo como Secretaria la de la Corporación Dña. Marisol Ezcurra Irure.

Previo al inicio del primer punto del orden del día, la concejala de Haize Morea, Sra. Remiro, la concejala de EH Bildu Erroibar, Sra. Ekisoain y el concejal de AIVE Sr. Gil, informan que van a grabar la sesión.

#### **1º.- PARQUE EOLICO Y CONTRATACION DE ASESORIA JURIDICA Y AMBIENTAL SI PROCEDE**

Toma la palabra el alcalde Sr. Garralda que informa que a petición de los grupos EH Bildu Erroibar y Haize Morea se ha convocado esta sesión extraordinaria con el fin de acordar si así procede a la contratación de una asesoría jurídica y ambiental para la defensa de los intereses del Ayuntamiento en relación con la posible instalación de un parque eólico en el municipio.

Toma la palabra la concejala Sra. Remiro, que antes de empezar quiere centrar el punto del orden del día porque cuando mandaron la convocatoria, los dos grupos EHBildu y Haize Morea solicitaba un punto del orden que luego no se ha transcrito tal cual en la convocatoria, hay un art. de la ley de Administración Local que nos capacita para solicitar la sesión aunque es verdad que luego la alcaldía puede fijar los puntos que quiera, y por eso cuando recibieron la convocatoria les llamó la atención que no viniera el punto tal cual habían propuesto, es más o menos lo mismo pero no igual, porque lo que se proponía es debatir sobre la necesidad o no de contratar a una asesoría y luego ya convenir el pedir presupuestos etc., y no que ya se hubiera pedido presupuesto y que se considerara como propuesta de presupuesto de Haize Morea y EHBildu la documentación que dichos grupos adjuntaron para la solicitud de la convocatoria a sesión, ya que lo que ellos presentaban era documentación complementaria que habían recopilado en este caso del Ayuntamiento de Esteribar con los costes que al mencionado ayuntamiento le habían ofrecido, pero no una oferta de presupuesto puesto que entiende que la oferta no a ser la misma porque cada Ayuntamiento tiene circunstancias diferentes y no son el mismo número de molinos los que se van a poner en un Valle que en otro. Por eso quería aclarar que es lo que se va a tratar. Toma la palabra el alcalde que contesta que en un principio se va a tratar si se cree conveniente contratar a una asesoría y luego ya que se nos echan las fechas encima, las propuestas económicas que se han presentado, las propuestas van por parque eólico a instalar como viene claro en la documentación aportada. El grupo de gobierno no va a ir con Esteribar porque en el propio parque que han presentado hay

muchas dudas sobre la ubicación de los molinos si se ubican en un municipio u otro y entiende que tienen intereses que pueden chocar. Hay un problema de mugas importante y cada uno debe defender su término municipal. En el parque que nos afecta hay 10 molinos, 7 en término de Erro y 3 en Esteribar de los cuales 1 opina que pertenece también a Erro.

En todo caso y para centrar lo que se quiere acordar, en primer lugar plantea el Alcalde, como así lo planteaban los grupos EH Bildu Erroibar y Haize Morea, si es necesario contratar una asesoría jurídica y ambiental, su grupo también cree que si es necesario, porque tanto jurídicamente como medioambientalmente hay temas que se deben controlar.

Estando todos conformes con este punto, se acuerda por unanimidad contratar una asesoría especializada en derecho medioambiental para la defensa de los intereses del Ayuntamiento de Erroibar en los procedimientos administrativos, que se han y se vayan a iniciar, dirigidos a la implantación de parques eólicos en el municipio de Erro.

En cuanto al segundo punto que proponían EHBildu Erroibar y Haize Morea respecto a la empresa a contratar, explica la concejala Sra. Remiro, que ambos grupos quieren dejar claro que lo que presentaron, no eran ofertas económicas para el Ayuntamiento del Valle de Erro, sino documentación que podría servir para hacerse una idea de lo que podría costar un asesoramiento de este tipo. Por lo que si se decidiera contratar a la misma empresa que va a asesorar al Ayuntamiento de Esteribar, habría que solicitarles un presupuesto para Erro.

Toma la palabra el alcalde Sr. Garralda que su grupo propone contratar a la asesoría que lleva con ellos más de 18 años, Nagore y asociados, porque conocen el municipio, saben como trabajan y tienen plena confianza en ellos.

Toma la palabra la concejala Sra. Ekisoain que replica al alcalde sobre la cuestión de no coger la misma asesoría que Esteribar por el problema de las mugas, pero a su entender Esteribar en los temas urbanísticos también trabaja con Nagore y asociados por lo que entiende que ahí también podría haber un conflicto de intereses y por eso ellas proponen para el tema medioambiental una asesoría especializada en estos temas a parte del tema jurídico que urbanísticamente podría llevar el letrado Sr. Nagore. Respondiendo el alcalde que Nagore y asociados colabora con Ecolan, empresa también especializada en medioambiente y a la que se conoce porque ya ha trabajado en otros proyectos con el Ayuntamiento.

Toma la palabra la concejala Sra. Remiro, que manifiesta que las empresas que ellas proponen, Arankoma y Bioma, medioambientalmente y en concreto en el tema sobre el que se va a asesorar tienen una experiencia y un curriculum bastante más amplio que Ecolan, con la ventaja añadida de que como manifiesta la Sra. Ekisoain ya llevan una semana trabajando en el tema lo conocen y sería beneficioso para nosotros también. Añade la concejala Sra. Remiro que el Ayuntamiento lo que necesita es una asesoría que haga una lectura crítica del proyecto, que valore, lea y les diga si está bien redactado, si el informe de impacto medio ambiental no hay lagunas, si falta algo, se

necesita alguien haga esa lectura crítica y Arankoma que ya lleva trabajando el tema un tiempo entienden que es la que interesaría al Ayuntamiento.

Toma la palabra la concejala Sra. Nuño, que pregunta si una de las posibles alegaciones pudiera ser la comentada por el alcalde de las mugas, ya que ella ha revisado el proyecto y ve que están señaladas todas las parcelas por lo que no sabe si el problema que plantea el alcalde es catastral o donde está el problema, contesta el alcalde el alcalde Sra. Garralda que medioambientalmente no será alegación pero si puede ser una de ellas e insiste que el problema está en el catastro y en la propia realidad del terreno. Comenta la concejal Sra. Ekisoain que para ella eso no es un tema que afecte al fondo de la cuestión que es la instalación del parque.

La concejala Sra. Remiro, insiste que los argumentos planteados por el alcalde Sr. Garralda para seleccionar una empresa y no otra, le parecen incongruentes, porque por ejemplo en el tema de la muga, es el mismo asesor el que va a asesorar a Erro que a Esteribar y por tanto ese argumento se cae. Y además la asesoría a contratar, debe preservar los intereses del Ayuntamiento no frente a Esteribar sino en todo caso frente al proyecto del parque eólico. Por tanto tener ambos Ayuntamientos la misma asesoría medioambiental no solo no los debilitaría sino que los fortalecería.

El concejal Sr. Eciolaza por el contrario, entiende que lo mejor para el Ayuntamiento es tener asesorías independientes, pudiendo en todo caso posteriormente compartir sus argumentos para luchar o poner pegas al proyecto.

La concejala Sra. Nuño, plantea una duda sobre el presupuesto presentado por Nagore y asociados, si los 3.700 euros es por proyecto y emplazamiento o por parque. Responde el alcalde que por parque e incluye la redacción de todas laa alegaciones que se formulen al mismo. Y sobre si Sacyr se ha puesto en contacto con el Ayuntamiento de alguna manera, contesta el alcalde que no.

Debatidas las propuestas, se acuerda rechazar la propuesta presentada por EHBildu Erroibar y Haize Morea con cuatro votos en contra (Srs. Gil, Eciolaza, Vidaurreta y Garralda) y tres a votos a favor (Sras. Nuño, Ekisoain y Remiro).

Y con cuatro votos a favor (Srs. Gil, Eciolaza, Vidaurreta y Garralda) y tres en abstenciones (Sras. Nuño, Ekisoain y Remiro), se acuerda:

- Aprobar la oferta presentada por Nagore y Asociados para la redacción de alegaciones técnico-jurídicas al proyecto de parque eólico Navarra 2, impulsado por SACYR RENOVABLES, que afecta a este municipio, por la cantidad de 3.700 € más IVA
- Trasladar a Nagore y Asociados el acuerdo adoptado para su conocimiento y efectos oportunos, insistiendo en el plazo que finaliza el 20 de septiembre de 2021

Toma la palabra la concejala Sra. Ekisoain, que propone solicitar una ampliación del plazo concedido para hacer observaciones, sugerencias,

alegaciones, ya que el que se ha dado, se ve insuficiente para la envergadura del proyecto. Estando toda la corporación de acuerdo en hacer dicha petición. Por último, se propone que una vez notificada la adjudicación y estudiado el proyecto en el plazo de siete o diez días, se mantenga una reunión tanto con Nagore y Asociados como con la empresa colaboradora Ecolan.

Toma la palabra la concejala Ekisoain que comentando que en el valle hay dos personas que trabajan en el Gobierno de Navarra en estos temas, Laura Larraya y Martin Ibarra propone tener una reunión con ellos la semana que viene para que explicaran su visión desde el Gobierno de Navarra y aclarar dudas. Quedar con ellos a las 13 h. o el 25, 26 o 27 de agosto. Todos de acuerdo.

Y sin más asuntos que tratar siendo las 10,00 horas del mismo día se levantó la sesión de lo que doy fe.

Lintzoainen, Erroibarko udaletxean, 2021eko abuztuaren 19ko 9:00etan, Erroibarko Udala Bildu zen lehen deialdian bilkura berezia egiteko. Bertaratuak: Jose Maria Eciolaza Ochoa, Juan Luis Fermin Gil Garcia, Teresa Bidaurreta Azkarate, Miren Nekane Nuño Iturri, Ainara Ekisoain Erro eta Leire Remiro Esnoz zinegotziak, bilkura buru alkatea, Enrique Garralda Erro izan zen eta idazkaria udalbatzarena, Marisol Ezcurra Irure.

Gai zerrendako lehenengo gaiari ekin baino lehen Haize Morea taldeko Remiro zinegotziak EH-Bildu taldeko Ekisoain zinegotziak eta ETI taldeko Gil zinegotziak bilkura grabatuko dutela adierazi dute.

## **1.- PARKE EOLIKOA ETA LEGE ETA INGURUMEN AHOLKULARITZAREN KONTRATAZIOA, HALA BADAGOKIO**

Garralda alkateak hartu du hitza, eta jakinarazi du EH Bildu Erroibar eta Haize Morea taldeek eskatuta, bilkura berezi hau deitu dela, udalerrian parke eoliko bat jartzeari dagokionez Udalaren interesak defendatzeko aholkularitza juridiko eta ingurumenekoa kontratatzeko, hala badagokio.

Remiro zinegotziak hartu du hitza, eta, hasi aurretik, gai-zerrendari heldu nahi dio. Izan ere, EHBilduk eta Haize Moreak bidalitako eskabidean puntu bat eskatzen zuten, baina gero ez da igorritako moduan deialdian transkribatu. Toki Administrazioaren Legearen artikuluko batek bilkura eskatzeko gaitasuna ematen digu, nahiz eta egia den gero Alkatetzak nahi dituen puntuak finka ditzakeela, eta, horregatik, deialdia jaso zutenean deigarria egin zitzaie proposatu zuten puntua ez etortzea, gutxi gorabehera gauza bera da, baina ez berdina, zeren proposatzen zena da eztabaidatzea ea beharrezkoa den edo ez aholkularitza bat kontratatzea eta, gero, jada adostea aurrekontua eskatzea, eta abar, eta ez berriz aurrekontua eskatzea eta Haize Morearen eta EHBilduren aurrekontu-

proposamentzat hartzea talde horiek bilkurarako deialdia eskatzeko erantsi zuten dokumentazioa; izan ere, haiek dokumentazio osagarria aurkeztu zuten, Esteribarko Udalarena kasu honetan, udalari eskaini zizkioten kostuekin; bere ustez, eskaintza ez da berdina izango, udal bakoitzak egoera desberdinak dituelako eta ibar bakoitzean jarri nahi den errota kopurua ez delako berdina. Horregatik argitu nahi nuen zertaz hitz egingo den. Alkateak hitza hartu du, eta erantzun du, hasiera batean, aholkularitza bat kontratatzea komeni den aztertuko dela, eta, gero, aurkeztu diren proposamen ekonomikoak, denbora presaren ondorioz; proposamenak parke eoliko bakoitzeko dira, aurkeztutako dokumentazioan agertzen den bezala. Gobernu-taldea ez da Esteribarrekin joango, aurkeztutako dokumentazioan erroten kokapenari buruzko zalantza asko daudelako, udalerrri batean edo bestean kokatzen diren, eta uste du talka egin dezaketen interesak dituztela. Muga-arazo garrantzitsu bat dago, eta bakoitzak bere udal-dermioa defendatu behar du. Eragiten digun parkean 10 errota daude, 7 Erron eta 3 Esteribarren. Horietatik bat Erron dagoela uste du. Nolanahi ere, eta adostu nahi dena zentratzeko, lehenik eta behin alkateak planteatzen du, EH Bildu Erroibar eta Haize Morea taldeek planteatzen zuten bezala, lege eta ingurumen arloko aholkularitza bat kontratatu behar den, bere taldeak ere uste du beharrezkoa dela, bai juridikoki bai ingurumen aldetik kontrolatu beharreko gaiak daudelako. Guztiak puntu horrekin ados daudenez, aho batez erabaki da ingurumen zuzenbidean espezializatutako aholkularitza bat kontratatzea, Erroibarren parke eolikoak ezartze aldera hasiko diren administrazio prozeduretan Erroibarko Udalaren interesak defendatzeko.

EHBildu Erroibarrek eta Haize Moreak kontratatuko den enpresari buruz proposatzen zuten bigarren puntuari dagokionez, Remiro zinegotziak azaldu du bi taldeek argi utzi nahi dutela aurkeztu zutena ez zirela Erroibarko Udalarentzako eskaintza ekonomikoak, baizik eta horrelako aholkularitza batek zer kostu izan lezakeen jakiteko balio lezakeen dokumentazioa. Beraz, Esteribarko Udalari aholkua emango dion enpresa bera kontratatzea erabakiko balitz, aurrekontu bat eskatu beharko litzateke Erroibarko Udalarentzat.

Garralda alkate jaunak hartu du hitza eta esan du bere taldeak proposatzen duela Udalari duela 18 urtetik aholkularitza ematen dion Nagorek eta elkartekideek izeneko enpresa kontratatzea, udalerrria ezagutzen dutelako, nola lan egiten duten badakigulako eta konfiantza osoa dugulako haiengan.

Ekisoain zinegotziak hartu du hitza, eta alkateari erantzun dio Esteribarko aholkularitza bera ez kontratatzeari buruz, mugetako arazoak direla eta, bere ustez, hirigintzako gaitan Esteribarko Udalak Nagoreekin ere lan egiten du; beraz, bere ustez, hor ere interes-gatazka egon liteke; horregatik, ingurumen aldeari dagokionez, gai horietan espezializatutako aholkularitza bat kontratatzea proposatu du, eta gai juridikoari dagokionez, hirigintzako atala Nagore aholkularitzak eraman zezakeela dio. Alkateak erantzun du Nagore eta bazkideak Ecolan enpresarekin elkarlanean ari direla. Enpresa hori

ingurumenean espezializatuta dago eta ezagutzen du, Udalarekin beste proiektu batzuetan lan egin duelako

Remiro zinegotziak hartu du hitza, eta adierazi du beraiek proposatzen dituzten enpresek, Arankoma eta Bioma enpresek, ingurumenaren aldetik, eta, zehazki, aholkatuko den gaiari dagokionez, Ecolanek baino esperientzia eta curriculum zabalagoa dutela, eta, gainera, Ekisoain andreak adierazi bezala, astebete daramatela gaia lantzen, ezagutzen dutela eta udal honentzat ere onuragarria izango litzatekeela. Remiro zinegotziak gaineratu du Udalak proiektuaren irakurketa kritikoa egingo duen aholkularitza bat behar duela, ondo idatzita dagoen baloratu, irakurri eta esango diena, ingurumen-inpaktuaren txostenean hutsunerik ez badago, zerbait falta bada, irakurketa kritiko hori egingo duen norbait behar dela, eta Arankoma, berriz, denbora batez gaia lantzen ari denez, Udalari interesatzen zaiona dela uste dute.

Nuño zinegotziak hartu du hitza, eta galdetu du ea balizko alegazioetako bat mugetako alkateak aipatutakoa izan daitekeen; izan ere, berak proiektua berrikusi du eta ikusi du lursail guztiak seinalatuta daudela, baina ez daki alkateak planteatzen duen arazoa katastrokoa den edo non dagoen. Garralda alkateak erantzun du ez dela ingurumen-arloko alegazioa izango, eta arazoa katastroan eta lurraren errealitatean bertan dagoela azpimarratu du. Ekisoain zinegotziak esan du berarentzat hori ez dela gaiaren muinari eragiten dion gaia, hau da, parkea jartzea. Remiro zinegotziak azpimarratu du Garralda alkate jaunak enpresa bat aukeratzeko eta ez beste bat planteatutako argudioak inkongruenteak iruditzen zaizkiola; izan ere, mugaren gaian, adibidez, aholkulari berak aholkatuko die Errori eta Esteribarri, eta, beraz, argudio hori erori egiten da. Gainera, kontratatu beharreko aholkularitzak Udalaren interesak babestu behar ditu, ez Esteribarren aurrean, parke eolikoaren proiektuaren aurrean baizik. Beraz, bi Udalek ingurumen-aholkularitza bera edukitzeak, ahuldu ez ezik, indartu ere egingo litzuke.

Eciolaza zinegotzi jaunak, aldiz, uste du udalarentzat onena aholkularitza independenteak izatea dela, eta, nolana ere, gero, borroka egiteko edo proiektuari eragozpenak jartzeko argudioak partekatu ahal izango dituztela.

Nuño zinegotziak galdetu du Nagore y Asociados aholkularitza enpresak aurkeztu duen aurrekontua, 3.700 €, proiektu eta kokapenari dagokion edo parkeari dagokion. Alkateak erantzun du parkeko dela eta horren barne sartzen dela alegazio guztiak idaztea. Eta Sacyr enpresak Udalarekin harremanetan jarri den galderari erantzun du ezetz.

Proposamen guztiak eztabaidatu ondoren erabaki da EHBildu Erroibar eta Haize Moreak aurkeztutako proposamena ez onartzea, aurkako lau botoz (Gil, Eciolaza, Vidaurreta eta Garralda) eta aldeko hiru botoz (Nuño, Ekisoain eta Remiro).

Eta aldeko lau botoz (Gil, Eciolaza, Vidaurreta eta Garralda) eta hiru abstentzios (Nuño, Ekisoain eta Remiro), honakoa erabaki da:

- Nagore y Asociados enpresak aurkeztutako eskaintza onartzea, SACYR RENOVABLES enpresak sustatutako Nafarroa 2 parke eolikoaren proiektuari alegazio tekniko-juridikoak idazteko, aurrekontua 3.700 € gehi BEZa izanik.
- Nagore y Asociados enpresari hartutako erabakia helaraztea, jakinaren gainean egon dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, eta berriro adieraztea epea 2021eko irailaren 20an amaituko dela.

Ekisoain zinegotziak hartu du hitza, eta oharrak, iradokizunak eta alegazioak egiteko epea luzatzeko eskatzea proposatu du; izan ere, eman dena ez da nahikoa proiektuaren tamaina kontuan hartuta. Udalkide guztiak ados daude eskaera hori egitearekin.

Azkenik, esleipena jakinarazi eta proiektua aztertu ondoren, zazpi edo hamar eguneko epean, Nagore y Asociados enpresarekin nahiz Ecolan enpresa laguntzailearekin bilera bat egitea proposatzen da.

Ekisoain zinegotziak hartu du hitza, eta esan du bailaran bi pertsona ari direla gai horietan Nafarroako Gobernuan lanean, Laura Larraya eta Martin Ibarra. Hori dela eta, datorren astean bilera bat egitea proposatu du, Nafarroako Gobernutik beren ikuspegia azal dezaten eta zalantzak argitu ditzaten. Haiekin abuztuaren 25, 26 edo 27an 13:00etan elkartzea proposatu du. Udalkide guztiak ados daude.

Eta gai gehiagorik ez zegoenez bilkurari bukaera eman zaio egun bereko 10:00etan, eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.